

EKOGUNeko BARATZE PARKEAN LURSAILAK ESKATZEKO IZEN EMATEA IREKITA

UDABERRIA 2018

“Ekologikoan ekoizten ikasi”

1. Helburua: Ekoguneko Baratze Parkeko Lursailen itxaron zerrendan izen-ematena emateko prozedura irekitzea, sortzen diren bajak bete ahal izateko.
2. **Izen-emate epea:** 2018ko maiatzaren 15etik ekainaren 30 bitartean (biak barne).
3. **Lursail motak eta prezioak:**

LURSAIL MOTA	PREZIO ARRUNTA € / hilabetean	KUTXABANK BEZEROAK € / hilabetean
30 m2	17	15
60 m2	28	25
90 m2	39	35
Lursail egokituak (jardinera altuak behar bereziak dituztenentzat)	11	10

4. **Izena-emateko Baldintzak:**

- Donostia, Lasarte edo Hernanin erroldatuta egotea.
- Beste baratze bateko erabiltzaile den bizikidetzaren unitateko kidea ez izatea.
- Eskatzaileak edo bizikidetzaren unitateko beste kide batek Donostian, Lasarten edo Hernaniko herrietan nekazaritzarako egokia den lursailik ez izatea, ez jabetzan, ez gozamen eskubidez ezta errentamenduan ere.
- Pertsona bera apuntatu daiteke lursail mota desberdinetan.
- Bizikidetzaren unitate bereko pertsona bat baino gehiagok eskatu dezake lursaila Ekoguneko Baratze Parkean. Hala ere, kide bati lursaila esleitu bezain pronto, bizikidetzaren unitate bereko beste kideak itxarote poltsatik kanpo geratuko dira.

5. Baratzekideak bete beharreko baldintzak:

- Erabiltzaileak Ekoguneko Baratze Parkeko araudia bete beharko du.
- Erabiltzaileak EKOBAPÉ Elkartearen kide izan beharko dira. (Ekoguneko Baratze Parkeko Erabiltzaileen Elkartea) eta Elkartearen araudia bete beharko dute.

6. **Abantailak eta Zerbitzuak:** Baratzezaintza ekologikoan oinarritzko ikastaroa doan, formazioan beherapenak, tailerretan parte hartzeko aukerak, buletina, aholkularitza zuzena, informazioa eta gomendioak, lurren analisiak eta Furgobaratzaren gainerako zerbitzuak.

7. Esleipen prozedura:

- Jasotako eskaera bakoitza azpiko 25 itxaron zerrenda hauetako batean txertatuko da. Esleipen berrietan, Ekoguneko Baratze Parkeko adin eta genero-talde bakoitzeko erabiltzaileen kopuru orekatua lortzea eta baratzekideen artean aniztasuna egotea izango da helburua.

ITXAROTE POLTSA	LURSAILAREN AZALERA	ADIN TALDEA	GENEROA
1	30 m ²	A taldea (≤ 30 urte)	Gizona
2	30 m ²	A taldea (≤ 30 urte)	Emakumea
3	30 m ²	B taldea (31-45 urte)	Gizona
4	30 m ²	B taldea (31-45 urte)	Emakumea
5	30 m ²	D taldea (46-60 urte)	Gizona
6	30 m ²	D taldea (46-60 urte)	Emakumea
7	30 m ²	E taldea (≥ 61 urte)	Gizona
8	30 m ²	E taldea (≥ 61 urte)	Emakumea
9	60 m ²	A taldea (≤ 30 urte)	Gizona
10	60 m ²	A taldea (≤ 30 urte)	Emakumea
11	60 m ²	B taldea (31-45 urte)	Gizona
12	60 m ²	B taldea (31-45 urte)	Emakumea
13	60 m ²	D taldea (46-60 urte)	Gizona
14	60 m ²	D taldea (46-60 urte)	Emakumea
15	60 m ²	E taldea (≥ 61 urte)	Gizona
16	60 m ²	E taldea (≥ 61 urte)	Emakumea
17	90 m ²	A taldea (≤ 30 urte)	Gizona
18	90 m ²	A taldea (≤ 30 urte)	Emakumea
19	90 m ²	B taldea (31-45 urte)	Gizona
20	90 m ²	B taldea (31-45 urte)	Emakumea
21	90 m ²	D taldea (46-60 urte)	Gizona

22	90 m ²	D taldea (46-60 urte)	Emakumea
23	90 m ²	E taldea (≥61 urte)	Gizona
24	90 m ²	E taldea (≥61 urte)	Emakumea
25	Lursail egokituak		

8. Dagokion itzarote taulan eskaera bakoitzaren kokapena finkatzeko, **ponderazio taula** aplikatuko zaio:

PONDERAZIOA	PUNTUAK
Etxean 4 lagun edo gehiago bizi dira	1
Hizkuntza (bat do bestea):	
- Euskara menperatzea	1
- Hiru hizkuntza edo gehiago menperatzea	2
PUNTUAZIO TOTALA	

9. Itzarote poltsa bakoitzean, puntu kopuru bera lortu dituzten eskaerak ordenatzeko, eskaeraren data hartuko da aintzat.

10. **IZEN EMATEAK.** Pausu hauek jarraitu:

- baratzeparkea.ekogunea.eus helbidean eskuragarri dauden bi dokumentuak deskargatu:
- Dokumentua bete:
 - Izen-emate Formularioa
- NAN-ren kopia egin.
- Izen-emate formularioa + NAN-ren kopia eskaneatu eta emailaz bidali ondorengo helbide elektronikora: baratzeparkea@ekogunea.eus
- Soilik posta elektronikorik ez baduzu, goran aipatutako dokumentazioa ondorengo posta helbidera bidali:

KUTXA EKO GUNEA
 EKO GUNEKO BARATZE PARKEA
 Rekalde - Hernani errepidea z/gabe (GI-2132, 2.km-a).
 20009 Donostia

11. Eskaerak jaso eta ponderatu ondoren, 2018ko uztailean itzarote poltsa berriei dagokien informazio guztia www.ekogunea.eus Webgunean egingo da **publiko**.